

## ***MERKATUAREN SEGMENTAZIOA***

Enpresa bat ondo jarduteko, bezeroen beharrietara egokitu behar da, haien beharrak asetzeko helburuarekin. Gure kasuan, eskaintzen dugun energia berriztagarria herritar orori zuzenduta dago. Dena den, gure helburua pertsonen bizi-kalitate minimoa bermatzea da; hortaz, bereziki arazo ekonomikoak pairatzen dituzten familiak lehentasun handiagoa dute gure zerbitzuak eskuratzeko.

Hain zuzen ere, hurrengo ezaugarriren bat dituzten familiek:

- 1200€-tik baino beheragoko soldata bakarra izatea.
- Familia ugari; gutxienez 3 seme-alabarekin.
- Gaixotasun larriren bat izateagatik lan egiteko ezintasuna.
- Gutxieneko pentsioa duten erretiratuak.

Gaur egun, prezioen igoera nabarmena ikusi dugu; horrenbestez, familia ugari etxebizitza mantentzeko arazoak dituzte. Igoera hau izan da gure enpresa bultzatu duen arrazoi nagusia: gure zerbitzua eskainiz, inguruneko ekosistemak zaintzearekin batera, familia horiek lagunduko ditugu zailtasun horiei aurre egin ditzaten.

